

AUZO BIRA

AUZO BIRA

2023-2027 legegintzaldiko gobernu planaren
azalpena



HERNANI AUZO BIRA, 2026

- Bizilagunekin bilera erronda -

HEGOALDE. BATZARRAREN AKTA

DEIALDIA	EGUNA	2026-01-22
	ORDUA	18:30-20:00
	TOKIA	Urumea Gay-Mur

PARTE-HARTZAILEAK:

Emakumeak	Gizonak	Guztira
21	13	34

- Udal ordezkariak: Xabier Lertxundi, alkatea; Axier Mingo Euskara, hezkuntza eta jarduera fisikoa eta kiroleko zinegotzi; Aitor Lukas, Gazteria eta Partaidetza zinegotzia. . Elena Calvar, partaidetza teknikaria.
- Dinamizazioan: Farapi Kooperatibatik, Gabriela Rentería eta Ines Huarte.

HIZKUNTZA:

Saioa euskaraz egin da, eta berehalako itzulpena egin zaizkie xuxurlatuz bi auzotarri.

0. AUZOZ AUZOKO SAIOEN KOKAPENA ETA AURKEZPENA

Lehenik eta behin alkateak hitza hartu du eta parte hartzaileei ongi etorria eman die. Zinegotziak eta Farapiko kideak aurkeztu eta saioan landuko den edukia azaldu du.

Farapi kooperatibak, ongi etorria eman die bertaratutako bizilagunei. Ondoren, saioaren nondik norakoak eta helburuak azaldu ditu. Halaber, hizkuntzaren erabileraren inguruko azalpenak eman ditu. Esan bezala, aurkezpenak euskaraz izan dira eta hitzartzeak bakoitzak erabakitako hizkuntzan.

Amaitzeko, jardueran zehar parte hartzea nola kudeatuko den eta ordutegia zein izango den zehaztu du. Hala, Hernaniko Udal ordezkariari eman zaie hitza.

1. AURKEZPENAK

Aurkezpenari hasiera emateko, Udalak 2023-2027 Gobernu Planaren eguneraketa azaldu du.

- Guztiz beteta %51,9 (70 ekintza)
- Betetzera bidean %36,3 (49 ekintza)
- Betetzen hasi gabe %11,8 (16 ekintza)

Jarraian, herri mailan egingo diren neurri nagusiak aurkeztu dituzte:

- Kultur ekipamendu berria, lehiaketa bidez aukeratua izango dena (udara aurretik aukeratua)
- Etxebizitzako Gune tentsionatuaren izendapena, hilabete honen amaieran jasotzea espero dena. Udaletik, horrekin batera, planifikatu den 3 urteko ekintza-plana eta etxebizitza behatokiaren sorrera, etxebizitzaren alokairuaren inguruko bitartekaritza.
- Plaka fotovoltaikoak jartzeko Henerkomekin egindako hitzarmena, Hernanin sortzen den energia kudeatu eta kontsumoa bultzatzeko.
- Mantentze lanetarako 2. plana (asfaltatze plana). Zona honetan:
 - o Marielutsetik Urbietarako malda
 - o Latsunbe 4 pareko bidegorri eta aparkalekua
 - o Sorgintxulotik Meaberako bidea
- Auzozaintza programa, adinekoei bideratutakoa
- Ilogailua

Ondoren, bereziki Hegoaldeko auzoei dagozkien eskuhartzeak azaldu dira:

- Karobietako obrak
- Txakur kakak
- Txantxilako plazatxoa
- Iturregiko trafikoa eskola orduetan
- Arrigoingo aparkalekua
- Udaletxe atzeko urbanizazioa

Jarraian, herritarrek Udalera bideratzen dituzten eskaeren inguruko azalpena eman da Udaletik. Jasotzen den eskaera kopuruak ezinezko egiten du ekarpen guztiei erantzuna ematea, batez ere epe labur batean. Hori dela eta, autokritika egin eta egungo sistemari buelta bat ematearen beharra azpimarratu da.

Honekin batera, espazio honek ematen duen aukeraz baliatuz, Udaletik martxan jarriko den inklusiorako zentroaren nondik norakoak azaldu dira: herrian gizarte egoera zaurgarrian bizi diren

12-15 lagunentzako zentroa izango da, gaur egun Udaltzaingoa dagoen tokian kokatua egongo dena. Aldundiarekin elkarlanean diseinatu den zerbitzua da, Gizarte Zerbitzuen Legeak dionari erantzuten dio.

Auzotarrek egindako proposamenen bilakaeraren berri ematea etorri da jarraian:

- Lizeagan: argiteria berritzeko, trafikoa, etxebizitza, kultur ekipamendua eta urbanizazioa eta gune estalien beharra.
- Santa Barbara: aparkalekua, herribusa, bizikleten aparkalekua eta argiteria.
- Txantxila: Aristizabal plazako mantentze lanak
- Karobieta: mantentze lanak eta elkarbizitza prozesua

Udalak hirigintzaz gain ematen dituen zerbitzuak jarri ditu balioan alkateak. Aurrekontuen artean oreka bilatzea garrantzitsua dela azpimarratu du.

2. BIZILAGUNEN EKARPENAK

Udal ordezkarien aurkezpenaren ondoren, bizilagunei ekarpenak, zalantzak eta iradokizunak egiteko tartea eskaini zaie.

HERRI LANAK	
Lizeagan zikinkeria eta mantentze lanak	<p><i>Lizeagako auzo elkartetik, bizilagunei galdetegi bat pasatu ostean, auzoan egiteko gauza asko daudela adierazten du partaide batek. Gehien bat, auzoan zikinkeria handia dagoela antzematen da eta espaloiak hondatuta daudela. Bereziki lorategietako hondarrak garbitu gabe gelditzen direla adierazi du.</i></p> <p>Udaletik kontziente dira arazo honetaz eta horregatik herri osoan zehar papelera gehiago jarri direla aipatu da, beste diseinu batekin. Azpimarratzen da halaber, zaborrontzi hauen erabilera egokia ezinbestekoa dela funtzionamendu on baterako. Lorategiko zabor bilketari dagokionez, enpresa kudeatzailearekin elkarrizketan daude arazo hau konpontzeko, haien ardura baita; zehazki, kontratazio berrian baldintzak hobetu eta lan hauen ardura enpresak hartzea ziurtatu nahi da.</p>
Lizeagan bolumen handiko zaborrak	<p><i>Lizeagako auzotarrek bolumen handiko zaborren bilketarekin ezinegona adierazi dute. Askotan kamioia beteta iristen da kamioia eta ez du tokirik jasotzeko. Eta deitzean bizilagun askok aprobetxatzen dute bereak ateratzeko. Maizago jasotzea faltan botatzen da, askotan zabor handiek asteak pasatzen dituzte kalean. Eskaera egin dugu udalean baina ez dugu erantzunik jaso.</i></p> <p>Zabor handien bilketa zerbitzuaren erabilera egokia egitearen garrantzia azpimarratzen du udalak, kamioiari lehenago deitzea. Zerbitzu hauek duten inbertsio altua adierazi du udalak eta kontzientziazioa handitzean jarri du fokoa. Hala ere, aipatu da gune gatazkatsu batzuk identifikatuta dituztela eta trataera berezia dutela, ikertuko dute Lizeagan ere horrela den.</p>
Santanora bidean dauden Betelanak	<p><i>Auzokide batek Imanol Lasako kamioiak eta Santanora doazen kamoiekin zer gertatzen den galdetzen du auzokide batek. Betelanak noiz arte jasan beharko dituzten galdetzen du. Goizean goiz hasten dira joan etorriak eta arratsaldera arte irauten dute eta traba handia dira bizilagunentzat, errepidearen egoera ez da ona eta hautsa dago nonahi. Badaki eremu pribatua dela eta udalaren eskumena mugatua dela, baina aterabidea eskatzen du. Diputaziora idatzi du ere</i></p>

	Zikintasunak kezka sortzen duela kontziente dira, eta bertan egiten denaren gardentasunak ere kezka sortu duela badakite. Egin beharreko kontraste eta inspektzioak egin dituzte udaletik eta egokitasuna dago egiten dituzten lanetan. Ingurumen ataletik jarraipena egiten ari dira ordutegia betetzeko, sarrerak eta irteerak kontrolatzeko, etab.
Tellerialdean mantenu lanak	<i>Auzokide batek aipatzen du Tellerialdeko kalean belarra egoten dela espaloietan, parketik karreteraraino doan espaloia airean dagoela eta bizikleten parkina erortzeko arriskuan dagoela.</i>

INGURUMENA	
Henerkom-en bazkidetza eskaera	<p><i>Auzokide batek Henerkomen bazkide izateko interesa du eta ez du orain arte erantzunik lortu haiekin harremanetan jartzen saiatu denean.</i></p> <p>Udaletik aipatu zaio proiektuaren babesleak diren arren eta energia komunitatearekin hitzarmena duten arren, ez direla kudeatzaileak eta ez dutela bazkidetzen ardura eramaten. Haiekin jarriko dira harremanetan mezu batzuk ez dituztela jaso jakinarazteko.</p>

UDALTZAINGOA	
G2132 errepidearekin kezka	<p><i>Auzokide batek baino gehiagok kezka erakutsi dute G2132 errepidearekin. Langile ikastolako sarrera gisa erabiltzen da eta abiadura biziko trafikoa dago (jendea onartutakoa baino azkarrago ibiltzen da) eta ibilgailu handiak pasatzen dira (autobus eta kamioiak).</i></p> <p>Udala jakinaren gainean dago eta bere eskumenean dauden neurri batzuk jarri dira dagoeneko (semaforoak eta zebrabideak), baina ohartarazten du errepide horren eskumena Diputazioarena dela. Lanketa bat aurreikusita dago hortik Galarretara doan espazio guztian, baina horrek denbora bat eskatuko du eta ez dakite Diputazioaren erantzuna zein izango den. Arrigoingo etxeak sortu zirenean eskaera egin zen Udaletik bideak okertzeko eta</p>

	<p>txikane modukoak jartzeko. Horregatik, udaletik eskaerak egiten jarraituko dute, semaforo gehio eskatuko zaizkio eta koordinatuko dira denak gelditzeko ustez egokiena den eran. Abiadura handia dela kontziente dira, baina dagoeneko badakite ezin dela 30 km ordura jaitsi abiadura.</p> <p><i>Auzokide batek balioan jartzen du udaltzaingoak egiten duen lana trafikoa bideratzeko. Iruditzen zaio hortik egin daitekeela zerbait. Aipatzen du, gainera, lehen Arrigoain aldeko errepidean bazegoela 2 edo 3 kotxe sartzen ziren toki bat, momentu baterako izan zitekeenak (elbarrien seinalea dute). Kendu egin dira eta agian baliagarriak lirateke Laubidetara sartzeko. Leku aproposa iruditzen zaio eskolako sarrera irteeretarako aparkalekuak jartzeko, jardina kenduta. Etxeen azpian aparkatzea baizik.</i></p>
<p>Arrigoain parkinarenkin ezinegona</p>	<p><i>Auzokide batek Arrigoain parkinean egingo den erabilera aldatzarekin ezinegona adierazi du, onartzen du orain arte ez dela arduratu gaiarekin. Egingo den erabilerak zalantzak sortzen dizkio eta bertako bizilagunentzat sortu dezakeen deserosotasunak kezka sortzen dio. Gaurkoz arazoak dituzte parkinean sartzeko trafiko afluentzia dela eta, parking publikoa gehituta arazoa handitzeko beldur da, bidegurutze erabilia delako. Kezka sortzen dio kamarak jartzearen kontuak eta gauean irekita mantentzeak ere. Bizilagunekin negoziatziora deia egiten dio Udalari. Bertako bizilagunek sarrera sistema bat izatea proposatzen du.</i></p> <p>Aparkalekuaren jabetza beti izan da Udalarena, gogorarazi dutenez, eta beti izan du publikoa izateko helburua, orain iritsi da momentu hori eta bizilagunekin batera ahalik eta soluzio egokiena bilatzen saiatzen ari dira. Izan ere sartu-irteerak ere kezka sortzen diela onartu dute. Udaletik aipatu dute horretarako bizilagunekin bilera zehatzak egin dituztela gaia lantzeko eta beren proposamenak entzuten ari direla. Zinegotziak argi utzi du publikotasunaren irizpidea betetzen den heinean, prest daudela bizilagunen proposamenetara egokitzeko (kanpoan kartela egotea, semaforoak, kontrol sistemak, kamarak parkin publikora begira...). Gai honen inguruan dauden partaidetza kanalak gogorarazi ditu eta bizilaguna gonbidatu du haietara. Onartzen dute hainbat zailtasun ekarri ditzakeela parkinak, besteak beste herriko lehen parkin estalia izango delako.</p> <p><i>Gai honi lotuta, beste auzokide batek uste du ideiak ez duela funtzionatuko kaskotik oso urruti dagoelako. Proposatzen du plaza batzuk zehazki Langile Ikastolako irakasleentzat gordetzea. Ikastolarik ez dagoenean arazo gutxiago dagoelako.</i></p> <p>Udaletik erantzuten diote, parkin publiko bat izateak ez duela bat egiten plaza batzuk pribatizatzearekin. Beste herrietako sistemak aztertzen ari direla aipatu dute Udaletik ere.</p>

<p>Institutu inguruko kotxeak Txantxilako errotondan</p>	<p><i>Tellerialdean bizi den auzokide batek, irteerarik gabeko kale bat da eta jende asko ibiltzen da institutuko sarrera irteeretan. Txantxilako errotonda inguruan trafikoa zaila izaten dela aipatzen du: goizetan udaltzaingoa egoten da baina arratsaldean, institutu irteeran ez. Semaforoa kaotikoa da (batzuetan azkar doa eta besteetan ez). Gainera, malda handia dagoela azpimarratzen du (gurpildun aulkian ezin da igo). Institutuaren ingurua urbanizatzeko beharra mahaigaineratzen du. Gainera, txantxilako errotondako zebrabidea arriskitsua da (zig-zag egiten duena), jendea hortik pasatzen da etengabe eta zain zaude luze, azkenean muturra sartu behar duzu, zergatik ez da beste norbait jartzen trafikoa bideratzeko arratsaldean ere?</i></p> <p>Institutuko kotxeen kontuari erantzunez, kotxeen erabilera handitu dela ohartarazten du udalak, geroz eta gehio erabiltzen direla eta horretarako inisutuekin elkarlanean daudela. Txantxilako errotondako pasoari dagokionez, ez zegoen identifikatuta arriskutsu gisa, kontuan hartuko dute eta aztertuko dute. Goizean udaltzaingoa dago trafiko asko kointziditzen delako, arratsaldean baino lehen.</p>
--	--

HIRIGINTZA	
<p>Elizatxo goikoan urbanizazio prozesua</p>	<p><i>Auzokide batek eskaera egiten du azuko urbanizazio prozesuen inguruan gardenak izateko, gauzak gaizki doazenean ere komunikatzeko, bestela buloak sortzeko aukera baitago, kritika konstruktiboa egiten du.</i></p> <p>Udalak azaldu du obra honen esleipen prozedura desierto gelditu zela ez zelako inor aurkeztu, baina dagoeneko itxi dutela zein enpresarekin egingo duten. Azken momentuko aldaketa izan da eta horregatik ezin izan dute komunikatu.</p>
<p>Zirkuitoko biala Elizatxon</p>	<p><i>Udalak egin Laubidetan dituen esku-hartzeak balioan jartzen ditu baina uste du ez dela nahikoa eta zirkuitoko bulebarizazioa proposatzen du, Diputazioa gehiago presionatu/insistitu dezaketela. Izan ere, zarata eta abiadura murriztea ezinbestekoa dela uste du. Gainera istripuak ere egon dira.</i></p>

	<p>Hernaniko udalak gogorazten du beti eskatu izan duela Diputazioan autopistaren salida bat egitea Galarretan eta aurren, lehenengo aldiz erantzun dutela asmoa dutela egiteko. Honek ze ibilbide izango duen zain daude.</p>
--	--

3. ITXIERA

Ekarpenen tartearen ondoren, Farapik hitz egindakoa borobildu du eta honako gako nagusiak nabarmendu ditu:

- Trafikoarekin, errepideekin eta mugikortasunarekin agertu da interes eta kezka gehien. Batez ere ikastetxe eta institutuko sarrera-irteerekin dauden mugimenduei lotutakoak izan dira ekarpenak.
- Zikinkeria eta lorategien kudeaketa ere hizpide izan dira eta udaletik enpresa kontratatuarekin baldintzak zehazten ari direla jaso da.
- Aparkaleku berriaren inguruan ere eztabaida dago eta gogorarazi da Udalak bizilagunen proposamenak jasotzeko partaidetza kanalak egituratu dituela eta bertatik bideratzera gonbidatu ditu.

Amaitzeko, alkateak Udalaren komunikazio-kanalak gogorarazi ditu, urtean zehar erabili ahal izateko: aurrez aurre, telefonoz eta Internet bitartez. Bereziki auzo elkarrekin sortutako partaidetza foroak (eta telefonoa) gogorarazi dituzte, urtean zehar beharrezko ekarpenak egiteko baliagarriak baitira. Eskerrak eman dizkie partaideei etortzeagatik eta saioa euskaraz egiteko aukera emateagatik.

4. FITXETAN JASOTAKO EKARPENAK

Saioaren amaieran, bizilagun batzuek idatziz adierazi dituzte bestelako proposamen eta kezkak, banatu zaien fitxa batean.

1) Zeintzuk dira zure kezka edo behar nagusiak momentu honetan?

- Lizeagan, gure Madalena 8 enparantza berritu edo behintzat lurra ondo jarri
- Limpieza en los jardines y en el barrio en general y falta de aparcamientos
- Antsorena anaien klaeen etxebizitza bakar batek dauka VADOa
- Auditorioak aspaldian hasia egon behar zuen
- Hernaniarren hizkuntza ohiturak, euskararen kontrako oldarraldiak sustengua du zenbati herritarren artean.
- Atez atekoa balioan jarri behar da. Informazioa sarri buzoietan nola banatu behar den esanez, etab.
- Garraio publikoa hobetu, maizago eta azkarrago Donostiarako joan-etorriak.
- El ruido producido por la circulación en la "carretera del circuito"
- Oraintxe bertan seguritatea, batez ere sagardotegi garaian asteburuetan; gure herritik kanpora atera behar izatea erdigunean ezin garelako ibili.
- Necesitamos algun local grande-diáfano. Hay muchas propuestas de actividades, pero no hay espacios.
- Txantxilatik kanposantuko semaforora doan bidean, espaloian zuhaitzak eta arbustoak maizago moztu,garbitu... Batez ere auzotik errepidera ateratzen den inguruan. Batzuetan bisibilitate oso gutxi dago eta arrisku handia.

2) Ba al daukazu auzorako proposamenik edo behar berriren bat nabaritzen al duzu?

- Tellerigain parke ondoan piboteren bat edo jarri etxeetako kotxeak ondo atera eta buelta emateko.
- Arrigoango auzoan elbarrientzako parkina jarri
- Berritze lanak Santa Barbara 72tik 78ra, espaloi estua garbitu beharra
- Bizikletako aparkalekuak jarri, bai Auzo Plaza, bai bestea Madalenako 8 plaza.
- Aparcamiento de bicicletas hace feo que se aparquen en la salida de los portales.

- Arrigoain inguruko kotxeen abiaduraz hitz egin da auzobirako bileretan. Aldundiaren ardura da errepidea, baina honekin harremanetan udalak herritarren beharrak azaltzen dituela aipatu da. Nik, are gehiago, trafikoaren abiaduraren arazoa Urnieta aldera dagoen errotondaraino gertatzen dela esango nuke eta konponbidea orokorra behar litzatekeela. Nola? Radar pedagogikoa? Abiadura motelduta aldatzen de semaforoa... ez dakit. Baina institutu aldean ere ikasleen joan-etorria oso handia da eta zonalde horretan ere abiadura moteldu beharko litzateke. Kotxearekin errepidera ateratzea ere zailtzen du abiadurak.
- Karobietan zakur asko ibiltzen da. Faltan daude zakar ontziak zakurren kakarentzako.
- Farolak margotu.
- Tellerigain kalean: ARGIA. Kalean bi puntu ilun daudela esango nuke: 1. Urumeatik gora, aldapa pasata, kurba iluna dago. 2. Hilerritik jarraian parkea ere iluna dago.
- Mejorar el barrio

3) Udalak martxan dituen politika eta neurrien artean zeintzuk jarriko zenituzke balioan?

- Auzozaintza

4) Nola baloratzen duzu auzo bira?

- Oso, oso ondo, harremana beti egon behar da udaletzetik herriarentzako
- Me parece genial aportar para mejorar los barrios y ser escuchados por vosotros. Muchas gracias!
- Oso ondo
- Oso ondo. Eskerrik asko!!
- Pero con poca asistencia.
- OSO ONA!
- Interesante
- Oso egokia